

EZKIO-ITSASO / Joxemari Carrere ipuin kontalaria, ostiralean, Santa Lutzi-Anduagako liburutegian

EZKIO-ITSASO. DV. Ezkio-Itsasoko Udalaren eta liburutegiaren eskutik ostiral honetan ipuin kontalari bat etorriko da herrira eta adin guztientzako ipuinak kontatatuko ditu bertan.

Behin baino gehiagotan etorri dira ipuin kontalariak gure herrira eta arratsalde polita igaro dute hurrek bere kontakizunekin eta baita asmakizunekin ere. Oraingoan Joxemari Carrere etorriko da liburutegiak gonbidaturik eta ipuin desberdinak kontatuko dizkie txikiei eta hain txiki ez direnei ere.

Joxemari Carrere Pasaia Donibanekoa da eta 1963. urtean jaio zen. Ipuin kontalari, aktore eta kazetari hau beste behin izan genuen Ezkio-Itsason eta aho-gustu gozoa utzi zuen bertan.

Horrela, oraingoan adin guztietara zuzendutako ipuinak kontatuko ditu eta herritar ugari hau entzutera joatea espero da, entzungo diren kontakizunak oso politak izango baitira.

Beraz, hau entzun nahi duten guztiek ostiral honetan, apirilak 27, arratsaldeko 6etan Ezkio-Itsasoko Santa Lutzi-Anduagako liburutegira hurbildu bakarrik ez dute egin behar.

Azken ipuina entzun bezain laster, saioa amaitu eta bertan dauden herritar guztiek sorpresa txiki bat jasotzeko aukera izango dute.